

TOKIKOM

2017ko iraila | 173. zenbakia

aita

txoi

Bizipoza

IBAI PEREZ DENDA TXIKIAK TOM HENNLEY TXORIERRIK KATALUNIAREKIN BAT





OAKLAND

ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK


946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO



Ikastegi homologatua

LARRABETZU MUSIKA ESKOLA


MATRIKULA ZABALIK



Errebale, 7 behea
94 455 70 66

ARINKA KASTEGIA

Goiko kalea, 6 DERIO



LH - DBH - BATX.
INGELES
MARRAZKETA
ERROBOTIKA

TAILERRAK eta
ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753
695 78 77 74

www.arinkakopidenda.com
arinkaikastegia.blogspot.com

Txorierriko AEK euskaltegia

Maila guztiak EGA, A1,A2,B1,B2 eta C1.
Talde txikiak eta ikasteko giro ona.
Eskarmentu handiko irakasleak.
Herrian bertan ikasteko aukera.
Autoikaskuntza
On-line ikastaroa

Matrikula zabalik irailaren 28ra arte

Gorbeia kalea 5 behe, 48160. Derio-Bizkaia
(Anbulategi ondoan gaudel)
94 454 39 67 / 607 598 794
txepetxa@aekeus

DIRU-LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: BIZKAYKO ALDUNDIA: Txorierriko Markakomunitatea
moldu egindakoa gero: ikasteko bonuak eta Larrabetzuko Udala
Bazka gehiagotzat

aeke
euskara praktikoa



% 100
AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK



Telefona:

94452 34 47
686 58 92 38





E-posta:

aikortxori@aiakor.com

HEMEN zure iragarkia

aikor!
txorierriko aldizkaria

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Pascual Molunga, musikaren aita
-  **12** Gurean izan da... Ibai Pérez, palaria
-  **14** Gaztea eta... Harkaitz Azurmendi, txirrindularia
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Bizipozaren jaia, Derion
-  **24** Gure musika... Broken izotz taldea
-  **26** Denda txikiak
-  **28** Tom Hennley artista sondikoztarra
-  **28** Kataluniarekin bat
-  **34** Teknologia... WiFi konexio publikoak
-  **35** Aikorrizketa... Euskaldunon konpota
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



26 Denda txikiak, Dañobeitia ahiztak



28 Kataluniarekin bat



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Eder Merino, Jasone Astola, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Gaizka Peñafiel, Itallen bertso eskola, Jokin Guridi, Roberto Gómez Txiki, Gaizka Peñafiel, Aner Mentxaka eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-en edota eritxien erantzukizunik.

Udalditik bueltan

Oporretatik bueltan praka bete amets gatoz. Proiektu berriak, ikuspegi berriak eta pilak beteta, asmo berriei ekiteko sasoia da. Hala ere, asmoak asmo, errealitate gordina dugu aurrean, eta adituek diotenez, baliteke opor osteko sindromea jasatea eta aste pare bat behar izatea gure onena ematen hasi ahal izateko.

Oso ohikoa da betebeharretara itzuli eta lehenengo egunetan haserrekor, suminkor, gogo eta adore barik izatea, eta kasurik larrienetan loezina ere nozitzea. Ez da harritzekoa, sarri, errutinari berriro eutsi behar izateak ez baitu esperantzarik pizten. Pentsa dezagun, bada, zer egin genezakeen egoera horri aurre egiteko. Ez dago formula magikorik, baina zenbait proposamen aztertu, eta nork beretzat hartu ditzala ondoen datozkionak.

Hasteko, oporretatik itzuli eta hurrengo egunean lanean hasteak ez digu bate-re onik egingo. Era berean, lehenengo

eguna patxadaz hartu beharko genuke, lagunak eta lankideak berriz ikusteko aukera da, oporretako gorabeherak kontatu eta asmo berriak partekatzeke.

Gero, astiro-astiro, kanpoan izan garen artean lanean zer gertatu den aztertuko dugu. Jarraian, ondo antolatzea komeni da, lan ildoak ezartzea eta planifikatzea. Hartara, ohiko lan erritmoa pausuz pausu berreskuratuko dugu. Helburu berriak jartzeak ere lagundu dezake lanera ilusioz joaten. Ez da etsi behar, guztioi egiten baitzaigu aldats gora egunerokora bueltatzea eta, konturatu orduko, egonezin hori desagertu egingo da.

Ezin ahaztu, lan-jardunaldia amaitu ostean, familiarekin edo lagunekin egoteko astia izango dugula, eta zaletasunei ekiteko denbora ere. Kirola edo jarduera fisikoa egiteak, esate baterako, estresari aurre egiten laguntzen du, baita lanaren monotonia apurtzen ere. Asteburuak eta



JASONE ASTOLA
(Irakaslea)

jaiegunak ere kontuan hartu behar dira eta gozatu. Hori bai, uneen unekoa bizitzeko, dena da atseginago eta errazago.

Amaitzeko, urrats garrantzitsuena dator, baikor izatea. Hau da, egoeraren alderik onena baloratzea, oporrak izan ditugu, hartu dugu atsedena eta orain lanerako ordua da. Gure erantzukizunari aurre egin eta dagokiguna ahalik eta ondoen egiteko unea, eta ez dezagun ahaztu, irribarreak zoriontsuago egingo gaitu eta lan-giro hobea sortuko du.

Gure abizena nondik datorren bada-kigu; nongoak garen azpimarrazten dugu eta ingurukoak nondik datozen ederki ziurtatzen dugu. Naturalki. Kontzienteki. Hangoak eta hemengoak. Pertsonen nortasuna definituko balu bezala erabiltzen dugu jatorria, eta arriskutsua bilakatzen da aurreiritziak elikatzen ditugun heinean; kanpokoak eta bertakoak sortzen direlako eta "hangoak" despertsonifikatzen ditugulako. Baina noiz bihurtzen da hango bat hemengo? Kanpoko bat bertako?

Lanpedusako oihuak mututu zituzten; gure telebistetako parriletatik desagerrarazi, eta orain isilean ari dira odolusten. Oskorrik ondo baino hobeto erakutsi zi-

Hangoak eta hemengoak



EDER MERINO
(Kazetaria)

gun zenbatzen; egunean behin gosaltzen dugu, bi dira norbait ezagutzean ematen ditugun musuak, hiru ziren ipuineko txerri-txoak, eta bost mila, joan den urtean mediterraneo itsasoan ito ziren "hangoak". Adioaren aingura pisutsuagoa da bestaldean ongi etorririk ez dagoenean eta horrela urperatu ziren bost mila istorio. Bost mila. Isilean. Zenbaki baten atzean gutxietsita. Eta gu bitartean, hemen, telebistak esandakoa irensten eta gure kontzientzia "mute"-n jarrita; jatorriaren aitzakiarekin despertsonifikatzen inoiz "hango" bihurtuko ez garen ziurtasun osoarekin.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Txorierritarrek antolatu egin gara, Txorierri metro-sarean benetan integra dadin exijitzeko

Azken hilabeteotan, zenbait ekimen izan dira Txorierriko herri batzuetan Txorierri metro-sarean benetan integraztearen alde. Izan ere, Artxandako tunel berria eraiki ostean gure betiko tren-zerbitzua metroaren hirugarren linearen parte bihurtuko zela agindu ziguten arren, ez da halakorik gertatu: lehen bezala orain ere, 1. eta 2. lineekin trasbordatu, leku eta baldintza berberetan egiten da: Zazpikaleetan, eta bigarren bidaia bat ordainduta. Baina bigarren bidaia hori txorierritarroi baino ez zaigu kobratzen, Kukullagatik Matikora bitarteko erabiltzaileek beste linea biak erabili baititzaizakete bidaia bakarra ordainduta. Eta onartezina da txorierritaronganako diskriminazio hau.

Horiek horrela, sinadura-bilketak egin genituen han-hemenka; eta denetara 3.000 sinadura baino gehiago jaso genituen. Gainera, kexa-gutunak igorri genizkion Arartekoari, eta Lezaman, Udalak aho batez onartu zuen eskaera honekin bat egiteko mozioa ekaineko udalbatzan. Bestalde, tren-zerbitzudun herrietako alkateak garraio-partzuergoko arduradunekin biltzea lortu genuen, baina esku hutsik itzuli ziren, baliozko emaitza zehatzik gabe, nahiz eta egia den konpromisoa agertu zutela "txorierritarren interesen defentsan aritzen" jarraitzeko.

Orain, uda igaro eta pilak kargatu ostean, galdera da: zeintzuk dira hurrengo urratsak? Bada, lehenengoa, herri diferenteetan izandako ekimenen bultzatzaileak mahai baten inguruan bildu, eginda-

koak errepasatu, eta emateko urrats posible horiek eztabaidatu. Eta horixe egin genuen gutun honetako sinatzaileok, pasa den irailaren 11n; hortaz, esan dezakegu txorierritarrek antolatu egin garela, eta aurrerantzean modu koordinatuan arituko garela trasbordoa ordaindu behararren diskriminazioa ezabatu arte.

Urratsei eurei dagokienez, hiru ekin-tza-lerro hauetan aurrera egitea erabaki genuen:

1. Lezaman aho batez onartu zen mozioa, edo antzekoak, Txorierriko beste herrietako udalbatzetan aurkeztea.
2. Garraio-partzuergoko arduradun politikoekin batzartzea gu geu, alkateak gurekin etorrita.

3. Gure aldarrikapenaren berri emateko Txorierri kanpoko hedabideetara jotzea (egunkariak, irratia...), baita bestelako informazio-kanpainak abiatzea herri- eta eskualde-mailan.

Azkenik, jakinarazi nahi dizuegu ekimen hau edozein txorierritarrentzat dagoela zabalik; gurekin kontaktatu nahi izatekotan, bidali mezu bat helbide honetara: linea3txorierri@gmail.com.

Sinatzaileak:

Avelino Rodríguez eta Marga Sáenz de Cámara (Sondika), Olatz Zubieta eta Toñi Heredero (Derio), Iratxe Aiarza eta Zigor Ureta (Zamudio), Marisa de la Parte eta Unai Ugalde (Lezama).



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

“Lezama denon artean” IV. azoka

Udalak eta Lezama Saretzen elkarteak antolatuta, nekazaritza azoka urriaren 14an, 11:00etatik aurrera, egingo da udaletxearen atzealdean eta ondoko kaleetan. Azokan, ohiko nekazaritza eta abeltzaintza produktuak egongo dira salgai eta horiek dastatzeko aukera ere egongo da: gazta, ogia, barazkiak, euskal pastela... Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapeneko Lezamako upategiak ere izango dira azokan. Eguerdian eta arratsaldean herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak egongo dira: auto klasikoien erakusketa, saiheski-pintxoak eta Lotxo musika taldea, batzuk aipatzearren.

Auto klasikoien kontzentrazioa, Loian

Zazpigarren aldiz egingo da urriaren 8an. Auto klasikoak 10:00etatik 11:30ak arte izango dira Loiko plazan, eta gero txangoa egingo dute Txorierritik. Hainbat kategoria ezarriko dira eta herritarrek euren botoa eman ahaliko diote gehien gustatzen zaien autoari edo, euren ustez, kategorietara ondoen egokitzen den autoari. Sariak 14:00etan banatuko dira, eta, Udalaren eskutik, hamaiketako eskainiko da Aurregoiti jatetxean.



Auzoen zinegotzia sortu da Sondikan

Udaletik jakinarazi duten moduan, Berreteaga, Zangroiz edo Izartza moduko auzoetako lagunek, baita Artxanda aldean bizi direnek ere, Udalarekin komunikazio kanal zuzena edukiko dute hemendik aurrera. Hala, eta Sondikako Aukera lehentasunen dokumentuan jaso den moduan, ohiko bideez gainera, auzotarrak zinegotzi batengana jo ahaliko dute, euren eskaerak Udalari helarazteko.

Zinegotzi hori Oskar Eguskiza da, barne erregimeneko arduraduna. “Au-

zoek badituzte modu zuzen batean erantzun nahi dizkiegun behar bereziak. Horrela, bada, Udaleko iradokizun postontziaren bidez egiten denaz gainera, etengabeko entzute prozesu bat hasi nahi dugu”. Auzotarrak 94 453 50 10 telefonoaren bidez ipini daitezke harremanetan zinegotziarekin, auzoetan bertan, edo auzoak@sondika.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita. Gainera, postontzi mugikor bat ipiniko da auzo guztietan.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Perretxikotan, Zizegorri elkartearen eskutik

Zamudioko mikologia elkarteak aste-buruko irteera antolatu du urriaren 21e-rako eta 22rako. Quintanar de la Sierrara joango dira eta izena ematea 658 74 65 37 telefono zenbakira deituta edo whatsapp bidez egin daiteke. Era berean, mezu bat bidali daiteke zizegorri@gmail.com helbide elektronikora. Irteerak 75 euro balio du; 25 euro, umeentzat. Prezioaren barne 21eko afaria eta hotela daude, eta 22ko gosaria eta bazkaria. Bakoitzak eraman beharko du egun bietarako hamaiketakoa.

Bestalde, Zizegorri elkarteak perretxikoak identifikatzeko zerbitzua ipiniko

du herritarren eskura udazkenean. Nahi duenak euren egoitzara –Aresti kalea, 2– jo dezake astelehenero, 19:00etatik 21:00etara.

Jardunaldiak, Derion

Bestalde, Untza Derioko mendi taldeak Mikologi jardunaldiak antolatu ditu hamargarren aldiz irailaren 14 eta 15erako. Irailaren 14an, Udaletxe aurrean lotuko dira goizeko 8etan, perretxikotara joateko. Hurrengo egunean, 10:00etatik 14:00etara mikologi erakusketa eta dastatzea egongo dira Sollube kalean.



Txorierriko XX. Ipuin Lehiaketa

Lehiaketan edonork har dezake parte eta lanak azaroaren 24ra arte aurkeztu daitezke Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean edo liburutegietan. Bost kategoriatan osatu dira adinaren arabera: A, zazpi urtera arte; B, zortzi eta bederatzirarte; C, 10 eta 11 urterarte; D, 12 urtetik 15 urtera arte; eta E, 16 urtetik gorakoak.

Gaia libre da; eta lanak, argitaratugabeak eta euskaraz.

Epaimahaiak, besteak beste, irudimena, sormena eta aurkezpena hartuko ditu kontuan lanak baloratzeko orduan. Kategoriatan bakoitzeko sari bat eta akzesit bi emango dira.

Lanak gutunazal handi batean aurkeztu behar dira, eta kanpoaldean kategoriatan eta udalerrian idatziko dira. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutunazal txikiaren barruan izen-abizenak, helbidea, adina eta telefono zenbakia ipiniko dira.



GOIZALDE
Peluteria
Estetika
Servicio de Peluquería y Estética
tlf. 94 455 81 44
Anguleri 2 bajo Larrabetzu - Bizkaia

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BOLALEKU
JATETXEA
• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK
Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jorralde
Facebooken

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

DERIO**Irailak 29, barikua**

- 19:00 Txosnak zabaltzea eta konparatsen zapiak aurkeztea
- Argazkilaritza ikastaroa hasia
- Balkoi lehiaketa hasia
- 19:30 Kalejira eta deabruaren jaitsiera, El Despiste fanfarrearekin
- 21:00 Pregoia eta txupina
- 21:30 Txitxi-burruntzia
- 23:30 Las Vegas gaua
- Erromeria, Garailak 26 taldearekin
- 03:30 Dj Porty

Irailak 30, zapatua

- 10:00 Goizeko traka
- 11:00 Umeentzako parkea
- 11:30 Lehiaketa gastronomikoak
- 13:00 Apirileko feria
- 14:00-14:30: Kazolak eta sariak aurkeztea
- 15:00 Herri bazkaria eta traka handia
- Sariak banatzea
- 17:00 La mara eta rebujitoak
- 18:00 Dj Porty
- 00:30 Berbena, Vulcano orkestragaz
- 05:00 Diskoteka

Urriak 1, zapatua

- 10:00 Goizeko traka
- 12:00 Txosnak zabaltzea
- 12:30 Euskal dantzak, Lainomendi dantza taldearen eskutik
- 16:30 Grand Prix
- 19:30 Dantzaldia, Trio Galera taldearekin
- 21:00 Jubilatuentzako kopaua

Urriak 5, eguna

- 18:00 Umeentzako jolasak eta diskoteka

Urriak 6, barikua

- 18:00 Xaibor
- 20:00 Txorizoa, sagardo erara
- 00:00: Erromeria, Akerbeltz taldearekin
- 02:15 Montaditoak
- 04:00 Dj Porty

Urriak 7, zapatua

- 10:00 Goizeko traka
- 10:30 "Julio Garitano" futbito txapelketa

San Migel jaiak

Datozen egunotan jaietan ibiliko dira San Migel Derioko auzoan, Larrabetzun eta Lauroeta Loiuko auzoan. Horra, hango jai-batzordeek prestatu duten egitaraua.



Garilak 26 taldea

- 14:00 Indaba jana
- 15:00 Azken-burukoa
- 16:00 Bingo berezia
- 20:00 Umeen moztorro lehiaketa
- 21:00 Nagusien moztorro lehiaketa
- 00:30 Berbena, Nuevo Talismán orkestrarekin
- 04:30 Diskofesta

Urriak 8, domeka

- 10:00 Goizeko traka
- 13:00 Kirol dantza erakustaldia, Sara Macarrilla eta Mikel Egiaren eskutik
- Bermuta
- 15:30 Jai-batzordearen bazkaria
- 17:30 Konpartsen arteko jolasak
- 20:00 Jaietako argazkiak proiektatzea
- 20:30 Sariak banatzea
- 21:00 Txokolatada

Jaien amaiera

LARRABETZU**Irailak 29, barikua**

- 12:30 Meza
- Mus txapelketa
- 15:30 Indaba jana, Hori Baiek antolatua

Urriak 1, domeka

- 10:00 Plazatik Eleixetara oinez
- 12:30 Meza
- Briska txapelketa
- 14:30 Paella jana
- 16:30 Bolo txapelketa



elekma
LARRAIZENEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOKAK

Lehenengo mailak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txerri etorbidea, 25-3-74 • 48160 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48160 Lailu-Bakaleia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitil.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lortza
48160 Denia

LAUROETA (LOIU)

Irailak 29, barikua

- 10:30 Kalejirak
- 12:00 Meza
- 13:00 Txosna zabaltzea
- Briska txapelketa eta igel-tokan jokatzeta
- Eguerdian, poteoa eta pintxoak
- 19:00 Triki-poteoa eta pintxo-potea
- 20:30 Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Etxahun Lekue, Sustrai Colina eta Xabi Paia
- Osteana, taloa eta txistorra
- 22:00 Erromeria

Irailak 30, zapatua

- 09:00 XIII. mendi ibilaldia
- 13:00 Kopaua eta sariak banatzea
- 18:00 Umeentzako jokoak
- 20:30 Xaibor diskoteka
- 21:15 Saiheskia eta txistorra jana
- 22:30 Xaibor diskofesta

Urriak 1, domeka

- Egun osoan, puzgarriak, gaztelua eta rokodromoa
- 11:00 Kalejirak
- 12:00 Meza
- 13:00 Euskal dantzak, Trabudu dantza taldearen eskutik
- Eguerdian zehar, trikitixa
- 15:00 Herri bazkaria
- Osteana, kantagune mundiala, Nafarroa kanta taldearen eskutik
- 19:00 Idi-probak
- Ahuntza zozketatzea
- 21:00 Erromeria
- 22:00 Txokolatada eta jaien amaiera



Beste Bira atletismo kluba sortu da

Udazkenean atletismo klub berri bat sortu da Txorierrin: Beste Bira. Loituk bultzatuta, klubak umeei zein helduei korrika egiteko eta, zaletu zein federatu mailan, lehiatzeko klub bat eskaintzea du helburu. Era berean, nahi dute kirol hau Txorierrin bultzatu, eta horretarako, 30 urteko eskarmentua duten entrenatzaile profesional bat hartu dute, Antonio Lorenzo, hain zuzen ere. Bestetik, Joseba Bermejok umeak entrenatuko ditu, eta horiek Beste Bira klubean atletismoan hasteko aukera izateaz gainera, jolasten duten bitartean ikasiko baitute. Loiuko Udalak taldea babesten du.

"Klubaren erroka taldea egitea da", esan digute. "Eta Loiuko kaleak eta Txo-

rierriko inguruak egokitzen hartzen ditugu lehenengo entrenamenduei ekiteko". Entrenamenduak urrian hasiko dira, eta gatzetxoak astelehenetan, martitzenetan eta eguenetan entrenatuko dira Loian, 17:30etik 19:00etara. "Hamalau urtetik gorakoak Lorenzorekin entrenatuko dira, Fadura edo Basauriko atletismo-pistetan, ondoen eta hurbilen ditugunak direlako. Neguarekin batera, krosak eta pistako saioak etorriko dira eta horietan gure koloreak egongo dira ikusgai lehendabiziko aldiz". Beste Bira klubean izena eman nahi dutenek lenai123@yahoo.es edo bestebiraloiu@gmail.com helbide elektronikotara mezu bat bidalita egin dezakete, edo 609 41 79 96 telefono zenbakira deituta.

MARMOLGINTZA GOYO
SURALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-8 nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazeditaberna@gmail.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel mota
Produktuak zeliakoentzat
Gaztelumendi, 3 - behea
48195 Larrabetzu
94 455 89 19

Ondarearen Europako jardunaldiak



a: Lezamako Udala

Horiek herritarrek parte hartzeko irekita dauden egunak dira eta, 1991. urtetik hona, urtero antolatzen dira Europako Kontseiluaren ekimenez Europar Batasunarekin elkarlanean. Jardunaldiak udazkenean izaten dira Europa osoan.

Loiuko azokak 25 urte bete ditu aurreten eta urteurrena urriaren 14an eta 15ean ospatuko dute, Ondarearen jardunaldiekin bat eginez. Hala, urriaren 14an, zapatuan, txu-txu tren bat egongo da goizean eta bidaia-herriko leku esanguratsuetatik eramango ditu,

hala nola San Pedro eliza, ortu ekologikoak, Bengoetxe baserria, Larraburu jauregia, Goiengo errota eta Arbildua basiliza. Txakolinaren dastatzea ere egingo da. Arratsaldean, kale animazioa egongo da, eta 18:00etan, garagardo dastaketa. Domekan, goizeko 10:00etatik aurrera, Gastronomia eta Eskulangintzako Azoka izango da. Animaliak egongo dira ikusgai eta herri kirolen erakustaldia egingo da. Oilaskoa eta txakolina dastatzeko aukera ere egongo da.

Urriaren 26an, "Derio, paisaia eta garapena" hitzaldia eskainiko da 19:00etan, Kultur Birikan, eta Labayru institutuak egindako bideoa ere aurkeztuko da.

Urriaren 28an, ibilalditxo egingo dute herritik.

Txakolina

Amagoia Guezuraga historialariak Zamudioko errege-bideei buruzko hitzaldia eskainiko du urriaren 18an, 17:00etan, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan (Larrauri 1A-5. solairua – Seminarioa), eta urriaren 22an ibilalditxo bat gidatuko du herritik. Sabino Arana plazatik irtengo da 10:00etan, eta jardura bietan izena emateko 944062490 telefono zenbakira deitu daiteke.

Lezama da txakolingile eta upategi gehien duen udalerritako bat. Txakolina erabakigarria izan da herriaren paisaian eta baserrietako ekonomian. Horrela, bada, aurreten ibilbide gidatua egingo dute zenbait mahastitatik eta upategi bat ere bisitatuko dute, han txakolina dastatzeko. Ibilbidea urriaren 22an, 11:00etan izango da eta topaleku Udaletxeko plaza izango dute. Izena emateko, 94 455 61 26 telefono zenbakira deitu behar da, edo liburutegia@lezama.org helbide elektronikora mezu bat bidali.

Azkenik, Larrabetzun bisita gidatua egingo dute urriaren 28an. Plazatik 10:00etan aterako dira.

Txorierriko ikastetxeak bertsoan buru belarri

Irailan, "Mundu bat bertso" egitasmoa hasi da Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio eta Sondikako eskoletan, eta Txorierriko Institutuan. Bizkaiko Bertsozale elkartearen eskutik, eta Txorierriko Mankomunitateari eta ikastetxeei esker, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 170 ikasle inguruk landuko dute bertsolaritza ikasge-

lan. Institutuan, bat-batean lehen pausuak emateko aukera izango dute DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleek.

Ahozkotasunetik abiatuta, hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonalak lantzen dituzte ikasleek "Mundu bat bertso" proiektuaren bidez. Astero, ordu-betean, bertsolaritzaren oinarritzko ezagu-

tza jasotzen dute ikasleek, urtean zehar egiten diren jaialdietarako bertsoak prestatzen dituzte, eta lantzen dute jendarean zelan egon eta zelan jokatu. Hori material osagarria, bertso jolas, ariketa berri, entzunaldi, bertso bideoa eta ikus-entzunezko baliabideez osatuko da, eta ekintza anitzak egingo dira ikasturtean.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47

BIZKARGI

TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO

944541635

astikenemotor

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



Pascual Molungua | Musikaren aita

1965ean Euskal Herrira heldu zen oportetan eta ez zekien bidaia hark bizitza aldatuko ziola. Pascual Molunga 1950ean jaio zen Ekuatore Gineako Ekuku herrixkan. Tata Ngombi izena jarri zioten: Musikaren Aita. Gaur egun Sondikan bizi den gizonak kalean kantatzen eman du bizitza osoa, eta behin, Valentzian kantatzen zegoelarik Nino Bravoren ama ezagutu zuen: "Semearen abestiak zelan kantatzen dituzun maite dut" esan zion emakumeak. Irribarretsu gogoratzen du 67 urteko afrikarrak pasarte hura.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Ahots sendo bat dator
ta goazen jarraika,
Tata Ngombi dogu
Musikaren aita.
Bere senide gara,
gura dogu aipa,
Musikaren sendia
guztiona baita.

Itallen Bertso Eskola

ETA AZAROAN...

TOC TOC
OPERACIÓN CACAHUETE 2.
MISIÓN: SALVAR EL PARQUE

ANTZAKIA

FUERA DE JUEGO
Borobil Teatroa
Komedia helduentzat
Azaroak, 18
20:00etan
Prezioa: 10 euro

ZINEA

RICHARD, LA CIGÜEÑA
84' AG (2D)
Urriak 22, 17:00 (EUSKARAZ)

KINGSMAN: EL CIRCULO DE ORO
141' EG-16 (2D)
Urriak 22, 19:30

LA LEGO NINJAGO PELÍCULA
AG (2D)
Urriak 29, 17:00 (EUSKARAZ)

BLADE RUNNER 2049
163' EG-16 (2D)
Urriak 29, 19:30

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa: 94.453.64.13

Bizkaia
Fora osasuna:
dignificación foral

sarreraren salmenta
www.aikor.eus
bik

SAHARARA ALDABETIK ERISTEN DUTEN
FRANZESARRAK
Ez dute ezkerreko aldeko
oraineko bide bat

“Beti nahi dut irabazi”

t: Gaizka Eguzkitza / a: Innpala, I. P.

Zelan Larrabetzuko jaialdia?

Oso ondo. Iaz ere egon ginen bertan. Ezin izan nuen irabazi baina tira, partidak oso orekatuak izan ziren eta jendea pozik atera zen. Gainera, pilotalekua bete egin zen, eta horregatik, geu ere, pozik.

**Pala beti omen dabil krisian, baina azken urteotan hura bultzatzeko aha-
legin batzuk egin dira. Zein momen-
tutan dago pala gaur egun?**

Pala berpizteko pausoak eman dira. Innpala enpresa gogor dabil lanean, jokoan sistema aldatu egin da... Nire ustez, aldaketak onuragarriak izan dira. Izan ere, udan gero eta jaialdi gehiago antolatzen dira. Era berean, neguan gero eta jende gehiago etortzen da gure partidak zuzenean ikustera.

Palari gazte batzuk beterranoen lekukoa hartzen zabiltzate. Nolako harremana daukazu beterranoekin?

Harremana oso ona izan da hasiera-hasieratik. Beterranoek izugarrizko babesa eskaini didate eta ez daukat kexarik. Pentsa ezazu duela 10-15 urte ni Club Deportivora joaten nintzela haiek jolas-ten ikustera. Eta gaur egun haien kontra nabil jokatzeko eta gainera, batzuetan, irabazi ere egiten diet. Zoragarria da.

Nondik datorkizu pilotarako zaletasuna?

Familiarengandik. Anaiak ere baziren pilotariak eta txikitan euren atzetik ibiltzen nintzen frontoiz frontoi. Eta noski, azkenean, neu ere hasi nintzen pilotan jokatzeko. Badakit jendeak uste duela Ezkerraldea ez dela oso pilotazalea, baina Sestaon egon badago zaletasuna.

Eskuan zein palan profesionala izan den pilotari bakarra zara. Hau marka hau!

IBAI PEREZ | palaria

Ibairen izena ez da Fusto edo Gaubekarena bezain eza-
guna, baina gaur egun munduko palaririk onena da,
Innpala pilotarien enpresak egiten duen sailkapenaren
arabera. Ez da harritzekoa, aurten binakako zein banaka-
ko txapelak irabazi baititu. Abuztuan, Larrabetzun eraku-
tsi zuen bere maisutasuna.



*“Jendeak uste du
Ezkerraldea ez dela oso
pilotazalea, baina
Sestaon egon badago
zaletasuna”*

*"Indarrak,
kontrolrik gabe, ez
du ezertarako balio.
Eta hori palan
ere gertatzen da"*

Bai, txikitan eskuz zein palaz jokatzeko nuen. Azkenean, eskua hautatu nuen eta 2009an, 19 urte nituela, Aspe enpresak profesionala izateko aukera eman zidan. Zoritxarrez, min hartu nuen eskuan eta ezin izan nuen behar bezala jokatu. Hurrengo urtean bukatu zitzaidan kontratua eta ez genuen luzatu. Oso etsituta bukatu nuen eta ez nuen pilotarekin ezer jakin nahi izan. Hala ere, 2013an nire betiko entrenatzaileak, Sestaokoak, animatu ninduen palan berriro jokatzera eta horrela hasi nintzen. Zaletu mailan txapel batzuk irabazi ostean, Innpala enpresak profesionala izateko eskaintza egin zidan eta hementxe gaude.

Ezkertia zara. Horrek onura ala kaltea dakartu?

Pilota nora doan, ba horren arabera: hormatik gertu badabil, ederto, baina zabalera badoa, okerrago. Normalean, eskuinaldeko eskua erabiltzen dutenak trebeagoak dira ezkerrekin, ezkertia eskuinaldekoarekin baino. Ezkerti arraroa naiz, ezkerrekin jokatu arren, eskuinaldekoarekin jaten edo idazten dudalako.

Beste palariak baino baxuagoa zara. Eraginik dauka horrek?

Esate baterako, Imanolek 1,90 metroko altuera du eta nik, 1,72. Baxuagoak garenok beste gaitasun batzuk garatu behar ditugu kalte horri aurre egiteko. Nik teknika erabiltzen dut pilota nahi dudan lekuan kokatzeko. Palan, beste kirol askotan gertatzen den moduan, teknika oso garrantzitsua da eta, iragarki batek esaten zuen moduan, indarrak,



Laburrean

- Izena:** Ibai Perez Gomez.
- Jaiotzea:** 1990/08/15, Sestaon.
- Debuta profesionaltasunean:** 2014/10/26, Sestaon.
- Palmaresa, zaletuen mailan:** Bizkaiko eta Euskadiko txapelketa (2014) eta GRAVNI (2014).
- Palmaresa profesional mailan:** Munduko Banakako eta Binakako txapelketa (2017); Binakako Liga (2014, 2016); Villa Bilbao Txapelketa (2015); eta Bizkaia Irekia (2016).

kontrolrik gabe, ez du ezertarako balio. Eta hori palan ere gertatzen da.

Eskuan aurrelaria izan zinen, baina palan atzelaria zara. Normala da hori?

Atzean gustura nago, baina aurrean ere jokatu nahi dut. Enpresak erabakitzen

du hori eta haiekin hitz egingo dut aurrelari aritzeko. Aurrean mugimendu handiago dago eta hori nahiago dut. Ikusiko dugu.

Aurten urte paregabea izan da, binaka zein banakako txapelak jantzi dituzulako. Binaka ala banaka jokatu nahiago duzu?

Banakako eta Binakako munduko txapelak jantzi nituen, baita Kutxabank Liga ere. Urte zoragarria izan da, bai. Banakakoa da garrantzitsuen, baina oso zaila da palan bakarrik jokatzeko, zeu bakarrik zaudelako frontoian, inolako laguntzarik gabe.

Hiru urte daramatzazu profesional eta dena irabazteaz gain, sailkapenaren lehenengo postuan zaudete. Zaila da motibazioa lortzea?

Motibazioa ez da arazoa niretzat, oso lehiakorra naizelako eta beti nahi dudalako irabazi. Aurten, jarraitu nahi dut irabazten eta ia irabazi nituen txapelak –edo gehiago– aurten ere lortu nahi ditut.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

“Bizikleta gainean disfrutatzen jarraitzen ahaleginduko naz”

HARITZ FELIX AZURMENDI DAÑOBEITIA | txirrindularia

Lezamarrak emaitza ezin hobeak lortu dauz XCO mendiko modalitatean eta, lehian urtebete daroan arren, lehenengo postuetan amaitu dau denporaldia kadete mailan. XCO denporaldia uda partean izaten da eta ha amaitu barria, Haritz ziklo-krosean arituko da buru-belarri. Gaztea institutuan harrapau dogu, atsedendian, eta aurpegia mailatuta agertu jaku.

t: Itxaso Marina / a: I.M. eta H.A.

Zer gertatu jatzu?

Denboraldiko azken lasterketan izan da. Lehenengo bueltan lurrera jausi nintzan aldats behera baten, eta gorputz osoa mailatu neban. Odola eta guzti eduki neban aurpegian eta, ikusi ezin nebanez, ezin izan neban lasterketea bukatu. Anbulantzia hartu ninduen.

Penea, ezta?

Bai, ez dalako denboraldia amaitzeko modurik onena izan.

Dana dala, pozik egoteko arrazoi pilo bat daukazu: Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna izateaz gainera, liderra izan zara Euskadiko Openean eta bigarren lotu zara Super prestigio internacional proban.

Espainiako txapelketan be izan nintzan, baina zortzigarrena lotu nintzan. Nahiko txarto...

Txarto? Baina zenbat txirrindulari ibili zinien bertan?

Laurogeta hamarretik gora... Emaitza hobia espero genduan, baina, tira, ez dago hain txarto be.

Gainera, kontuan hartuta lehian sartu zaren lehenengo urtea izan dala.

Bai, aurreko denboraldian bi-hiru lasterketan hartu neban parte, zelango maila neukan ikusteko. Probatzearren. Eta aurten serio hartu dot. Pozik nago.

Zelan ikusi dozu zeure burua denporaldian?

Nahiko indartsu ibili naz orokorrean, baina zorte txarra eduki dot: katea behin apurtu jat, gupila bi bider zulatu jat, jausi egin naz... Super prestigio proban, esate baterako, lider nenbilen, baina azkenaurreko lasterketan gupila zulatu jatan eta bigarrena lotu nintzan.

Eta zelango txirrindularia zara?

Igotzailea nazela dinoe, lasterketa aldapatsuetan besteak baino hobeto nabilela. Eta egia da aldapa gogorretan, amaieran, estra antzeko bat daukadala eta hori aprobetxatzen dodala. Baina nik gurago dot lurralde lauetan ibili, eta azkar. Esprintak eta itereak be asko gusetan jataz. Gero, lasterketatik kanpo, beti nabil bromatan gainontzeko txirrindulariakaz, baina probea hasten danean, serio paretan naz. Izan be, arerioak gara azken baten.



Zelan edo zergaitik hasi zinan txirrindularitzan?

Bizikletaren gainean txikitatik ibili naz; eta institutuan hasi nintzanean, are gehiago. Hamaihuru urte-edo neukazala, hasi nintzan Bizkai mailan antolatutako herri-martxetan parte hartzen, mendiko martxa luzeetan... eta ikusi neban ondo nenbilela. Gero, kirol denda batekoek halako probetan ibiltzeko nirea baino egokiagoa zan bizikleta bat itxi eustien, eta handik urte eta erdira nire kategoriako lasterketetan parte hartzeko proposamea egin eustien. Beste bizikleta egokiago bat erosi, eta lehian sartu nintzan.

Bizikleta.com taldean zagoz. Gustura?

Oso. Laguntza handia emoten deuskue esparru guztietan.

Badakigu arreteta ikasketetan daukazula ipinita, eta denbora librea lagunakaz emon gurago dozula. Eta entrenamenduak?

Gazte askok bi edo hiru ordu entrantzen dabe egunero, eta oso gogor gainea. Nik, institututik etxera ailegatzen nantzanean, etxerako lanak egiten ditut lehenengo eta behin. Eta gero, ilundu baino lehenago, urtetan dot entrenatzera. Egia da nahiko entrenamendu bizia dala, bai-



*“Txirrindulari
profesionalek oso
bizitza gogorra daroe
eta ez dakit horretarako
prest nagoen”*

*"Ikasketak, lagunak
eta kirola buztartu
beharko dodaz ondo,
gustetan jatana egin
ahal izateko"*

oso bizitza gogorra daroe eta ez dakit horretarako prest nagoen. Ikusi beharko da zelango bilakera daukadan hemendik 18 urte bete arte. Ondo jarraitzen badot eta hobetzen joaten banaz, orduan erabagiko dot.

Ziklo-kros denboraldia laster hasiko da. Zelan etorriko dira datozen hileak?

Laskerketea edukiko dot astero, domeketan, eta batzuetan kanpora atera beharko naz asteburuan. Beraz, astelehenetik barikura arte aprobetxatu beharko dot ikasi eta lagunakaz egoteko. Ezin izango dot ezta arratsalde bat be galdu, ordu bat besterik ez bada be, sofán botata emon. Dana ondo buztartu beharko dot, gustetan jatana egin ahal izateko.

na nik ondo pasatea daukat beti helburu,
eta ez saio perfektu bat betetzea.

Hamasei urte bete barriak daukuzuz eta horrek kategoria aldatetee karri dau.

Bai, jenteak dino jubeniletan beharrezkoa dala egunero bi edo hiru ordu entrenatzea, baina, printzipioz, saiatuko naz orain arte moduan egiten. Eta nire eta gainontzeko txirrindularien mailaren

arabera, eta beharrezkoa bada, gehiago entrenatuko naz... baina ezin dodaz ikasketak utzi. Aztertu behar dot zelan buztartu dana... Halanda be, ahaleginduko naz bizikleta gainean disfrutatzen jarraitzen.

Txirrindulari profesionala izatea gustauko litxakizu?

Nik gorputz-hezkuntzako irakaslea izan gura dot, edo kirolari lotuta dagoan zeozertzan ibili. Txirrindulari profesionalek





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
 Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
 Landa Hesieta eta Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxea

ZIENTZIAK BATXILERGOA

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioko teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolerako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Uztazaga Itzala Kalea, 1
 48160 – DERIO

Tel.: 94 403 40 00
 Fax: 94 403 40 01

info@txorierri.net
 www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, gazteekin aurrez aurre esku hartzeko, zenbait jarduera egingo ditu udazkenean, Lokalean programaren barruan. Besteak beste, honako tailer hauek antolatuko dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, sexualitatea, gazteen parte-hartzea, droga-mendekotasunaren prebentzioa... Jarduera horien helburua da gazteen-ganako lotura eta konfiantza areagotzea eta eskualdeko lokalak nolakoak diren erakustea. Lokalak, hain zuzen ere, gizarteko fenomeno konplexua dira, eta, egindako azterketen arabera, kanpoko faktoreek, faktore kulturelek eta gazteen barne-faktoreek dute eragina horretan.

Bizkai osoan, 15 eta 30 urte arteko herritarren % 21,3k parte hartzen dute gaur egun gazteen lokalean, eta beste % 24,1ek iraganean hartu izan dute parte. Txorierrin, 2017ko ekainean, Mankomunitateko zerbitzuekin harremana zuten 19 lokal zeuden. Horietatik bederatzi Derion daude, bost Zamudion eta bost Sondikan, eta Larrabetzun, Loiun eta Lezaman, berriz, ez da lokalik kontabilizatu. Gainera, Mankomunitatea eta Udalak harremanetan daude beste gazte talde batzuekin, hala nola Loiuko Bakarrak taldearekin, Zamudioko Gazte Asanbladarekin eta lokalik ez duten hiru koadrilarekin (bi Derion eta bat Sondikan). Larrabetzun, horrez gain, parte hartzeko prozesu bat landu zen herriko gazte talde batekin, zer-nolako beharrak zituzten aztertzeko.

Talde horiekin lan eginez, gazteek nolako interesak eta beharrak dituzten ikus daiteke, eta, horren arabera, Lokalean programaren harira antolatzen diren jarduerak bideratu. Programa horren bitartez, aldaketak eragin nahi dira bai gazteen artean –komunitatean aktiboki parte hartzeko bideak eta pertsonalki nahiz kolektiboki emantzipatzeko ereduak aurki ditzaten, euren bizipenak oinarri hartuta–, bai helduen artean –gazteei heldutasunera igarotzeko bide emango dieten politikak sortzen lagundu dezaten, euren balio eta esperientziei uko egin gabe–. Azken batean, helburu nagusia da, alde batetik, hazteko, heldu bihurtzeko eta ahalduztzeko harreman-esperientziak eskaintzea

gazteei eta, bestetik, hazkuntza horretan lagunduko dieten erreferenteak ematea, betiere helduaroako prozesu hori gertatuko den komunitatearekin esku hartuz. Gainera, erakutsi nahi da lokalak gazteei entzuteko eta gazteak komunitatean parte hartzera bultzatzeko lanerako gune egokiak direla.

Fenomeno konplexua

Lokalean programako gizarte-hezitzailea zuzenean harremanetan jartzen da astean behin gazteekin, euren guneetan, baita Mankomunitatearekin ere. Han, gazteekin eguneroko kontuez hitz egiteaz gain, denetarikoa jarduerak egiten dituzte, hala nola elkarriketa egituratuak, talde-

Lokalean programa

Gazteen parte-hartzea eta gazteen eta haien lokalen gaineko ikuspegi positiboa sustatzeko tailerrak

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak gazteekin lanean jarraituko du, haiekin lantzean behin aurrez aurre esku hartuz, haienganako lotura eta konfiantza areagotzeko, askotariko lokalak ezagutzeko eta lokaloi herritarren artean duten estigma kentzeko.

Txioa aretoa, gure taldeek entseatzeko lekua



Aretoa Derioko Larrabarri Baserrian da, eta Txorierriko 30 urtetik beherako gazteek osaturiko musika-taldeek entsea dezakete bertan. Mankomunitateak kudeatzen du aretoa, eta azaroko bigarren hamabostaldian zabalduko da 2018rako izena emateko epea. Lokala erabili ahal izateko, gutxienez taldekideetako batek Txorierriko udalerrietako batean erroldatuta egon beharko du. Gaur egun, hainbat musika-estilotako zazpi taldek entseatzeko dute lokalean, rocka eta rapa egiten dutenak. Lokalean, bateria, ahots-ekipoa, bi gitarra-anplifikadore eta baxu-anplifikadore bat daude; taldeek lasai erabil dezakete lokala, materialean asko gastatu barik.



*2017ko ekainean,
Mankomunitateko
zerbitzuekin harremana
zuten 19 lokal zeuden*

*Lokalak gazteak
komunitatean parte
hartzera bultzatzeko
lanerako gune egokiak
direla erakutsi nahi da*

bide sozial eta kultural publikoak; eta aisialdirako eta kontsumorako aukera garestiak eta mugatuak (besteak beste, adina eta giroa direla eta). Horregatik guztia-gatik, gero eta ohikoago bihurtu da negozioen itxierak utzitako lokal hutsak hartu eta taldeak biltzeko lokal bilakatzea. Hori dela eta, gazteen beharrak haien inguruko bizikidetzarekin nola batera daitezkeen aztertu behar dute udalerriek. Mankomunitateak lantzen duen Lokalean programak, hain zuzen ere, ildo horretan lan egiten du, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta.

dinamikak, tailerrak eta hitzaldiak. Lan hau, halaber, Txorierri BHIIn, Politeknikan eta PCPI ikastetxeko ikasgeletan aurkeztu da. Irailetik aurrera, beste tailer eta jarduerak batzuk antolatuko dira, gazteen beharrei erantzuteko.

Gorago esan bezala, gazteen lokalak gizarteko fenomeno konplexua dira, eta, egindako lanak dioenez, era askotako fak-

toreak daude horren atzean: gazteen munduaren eta helduen munduaren arteko urruntasuna; herriko politikarekin eta herritar izatearen kontzeptuarekin duten urruntasun eta lotura-falta handia; parte hartzeko formula tradizionalekin lotutako krisia (aisialdi hezigarria, asoziazionismo erlijioso, politikoa eta borondatezkoa, etab.); gazteentzat egokitu gabeko balia-

Bideo-sorkuntza tailerra

Irailaren 11tik azaroaren 13ra zabalik egongo da Beldur Barik lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren xedea da gaur egun dauden emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezari neska-mutilek nola aurre egiten dioten erakusten duten mota guztietako adierazpen artistikoak ezagutzea, balioestea eta sustatzea, betiere errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jarreraren eta jokabideen bidez. Hamabi eta 26 urte arteko edonork parte har dezake, eta 500 euro eta 300 euroko sariak banatuko dira.

Txorierriko gazteei euren lanak egiten eta izan ditzaketen ideiak garatzen laguntzeko, Mankomunitateak doako bideo-sorkuntza tailer bat antolatu du. Tailerra urriaren 17an, 19an eta 24an izango da, 18:00etatik 20:00etara, Kultur Birikan. Jarduera horretan parte hartzeko, berdintasuna@txorierri.eu helbidera idatzita eman behar da izena, irailaren 18tik urriaren 6ra bitartean. Lehiaketari buruzko informazio guztia Beldur Barik ekimenaren webgunean aurki dezakezue.





Derio bizipoztu egin da

Eta kolorez, poztasunez, alkartasunez, auzolanez, irrifarrez... bete zan irailaren 17an. Izan be, egun horretan Bizipoza alkartearen jaia ospatu zan bertan. Ehunka txorieritarrek eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako lagunak izugarri gozau eben egun osoan zehar antolatutako ikuskizunakaz eta jolasakaz.

t: Itxaso Marina / a: Aner Mentxaka

Hainbat egitarau antolatu zan Bizipozaren jairako. Besteak beste, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna egon zan, musika saioak, dantzaldiak, ipuin kontalaria, tailerrak, puzgarriak, jolasak, rockodromoa, herri bazkaria... Beraz, mugimendu handiko eguna izan zan, eta antolatzaileak zein bisitariak pozik baino pozago lotu ziran jaiagaz.

Bizipoza alkartea izaera bereziko Euskal Herriko 33 alkartek osatzen dabe, eta jaiak horreen lana ikusarazo eta gizarteratzea euki eban helburu. Alkarteen artean, eta banaka batzuk aitatzearen, dagoz Chrysallis Euskal Herria, adingabe transexualen familien alkartea; Chernobilen

*Antolatzaileek
boluntarioen lana
azpimarrau dabe,
baita jaiaren parte hartu
daben alkarteen be*

lagunak; EtiopiaUtopia Fundazioa; eta Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioa. Derioko Gure Señeak alkartea be badago Bizipoza alkarteen barruan, eta anfitrioi ibili dira aurtengo jaiaren.

"Egun ezin hobea izan da", esan euskun Luisma Landaluze Gure Señeak alkar-

tearen kideak. Landaluze pozik eta hunkituta azaldu jakun. "Mundu guztia hurbildu jaku zorionak emotera. Jenteak egun atsegin bat pasau dau, jai-giroan eta musika alaiagaz eta ekitaldi piloategaz. Gainera, oso jai zabala izan da, ekitaldiak gune ezbardinatan egon diralako eta, ondorioz, denpora osoan egon da zerbait eta jenteak aukeratu ahal izan dau zer ikusi eta nora joan. Egun hunkigarria be izan da. Lagun asko etorri dira eta momentu askotan gune guztiak leporaino bete dira".

Jaia auzolanean egin da eta Landaluze boluntarioen lana azpimarratu eban bereziki. "Aurreikusita genduan 100 boluntario behar genduzala, eta akabuan 175 lagun azaldu dira antolatze-lanetan



Herriko Plaza, 3 – 48160 DERIO
Tel. 94 454 00 62 – Fax. 94 454 27 38
euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

17/18
KASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara klaseak

www.udaleuskaltegiak.eus



laguntzeko prest. Eskerrak emon behar deutseguz, euren onena emon dabelako. Eta beti arpegi onagaz". Derio eta Txorie-riko alkarteen eta taldeen parte-hartzea be eskertu eban. "Ezinbestekoa izan da. Laguntzeko prest agertu dira eta ekitaldi asko egon dira euren ardurapean: dantza, musika, argakilaritza ingurukoak...". Era berean, Derioko eta Zamudioko Udalak emondako laguntzea azpimarratu eban. "Horreen laguntza barik, gurea lako alkar-te batentzat gatxa izango zan hain jaialdi handia antolatu ahal izana".

Alkartasun uholdea

Leire Elizegi Bizipoza alkartearen ki-dea da eta bera be hunkituta azaldu zan derioztarrek eta txorierritarrek emondako erantzunagaz. "Alkartasun uholde izugarria izan da Derion. Eta azpimarratzekoa da egunean bertan zein aurreko egune-tan antolakuntzatik egin dan lana, bolun-tarioena, babesleena -40 inguru euki doguz!-, Udalaren inplikazioa, herriare-na... Parte-hartze izugarria egon da eta Deriora etorri dan jentea be oso gustura ibili da".

Bizipozaren barruan dagozan alkarte-entzako gunea be atondu zan, euren lana





ZAMUDIOKO KAMARA KORALA www.zamudiokokamarakorala.eu

Abestea gustatzen bazaizu
ERDU!!

• ENTSEGUAK •

Haur/gazteen abesbatza (7 urtetik aurrera)
Astearteetan 17:30etatik 18:30etara

Helduen abesbatza
Astelehenetan 19:45etatik 21:15etara

Z K K

☎ 657 775 911
✉ idazkaritza@zamudiokokamarakorala.eu

*“Errealidade asko
dagoz munduan,
eta alaitasuna eta
alkartasuna guztion
artean eraikitzen doguz”*

jenteaurrean ezagutarazoteko, eta asko izan ziran hara informazio bila hurbildu ziranak. “Alkarteak oso pozik dagoz, alkar-teen eta herritarren arteko ezagutza egon dalako. Azken baten, guztiontzat izan beharko leukeen mundu honetan errealidade asko dagoz, eta alaitasuna eta alkartasuna guztion artean eraikitzen doguz”.

Gatxa da zifra orokor bat emotea, bai-na egia da irailaren 17an jentetza handia batu zala Derion. Antolakuntzatik zenba-ki batzuk jakinarazo ebezan: 880 lagun,

bazkarian; eta 872 persona, pailazoen ikuskizunean. Esan euskuen moduan, jente pilo bat bildu zan gune guztietan, eta karpea behin baino gehiagotan bete zan.

Mundua guztiontzat

Bizipoza alkartea Irrien lagunak klube-rik sortu zan. Klub hori Katxiporreta paila-zo taldeak, Elkar argialetxeak eta *Berria* egunkariak sortu eben eta Euskal Herriko umeei eta euren familiei zuzendutako ko-munikazino eta hartu-emon esparru estra-tegikoa da, batez be ikuspegi hezitzailea dauena. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez errealidade ezbardina dauken umeak eta familiak ezagutu dabez euren ibilbidean, eta horrek bultzatu ebazan ha-ratago joan eta Bizipoza, alkarteen alkar-tea, sortzera. Alkarteak solidaridadea dau oinarri, eta hobeia dan mundu bat sortzea, helburu. Guztiok lekua dogun mundu bat hain zuzen be. Euren leloak dinoanez, munduak guztiontzat beharko leuke.



FORMULARIK ONENA?

BERBALAGUN= 1+1

ZER DA BERBALAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko programa da.

ZERTARAKO?

Euskara hobetzeko, praktikatzeko, euskaraz bizitzeko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko, euskaraz berba egiteko beldurra galtzen laguntzeko...

ZELAN?

Astean behin, ordubetez, paseoan, kafetegian, parkean ikastaroetan; asteburuetan irteerak, afariak...

...ETA GURASOLAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak, zailtasunak dituztenekin elkartzeko programa da. Astean ordubetez 5 edo 6 laguneko taldean elkartzen dira,

IZENA EMATEKO:

Izen-abizenak:

Jaiotze data:.....Helbidea:

Herria:.....Tel:.....

E-posta:.....

Euskara ikasten nabil: Euskalduna naiz:

Eguna.....Ordua:.....

KONTAKTUA:

635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Laguntzaileak:



TXORIERRI
LAGUNTZAILEAK

Antolatzailea:



Babesleak:





t: Itxaso Marina / a: B.I.

Juanek azaldu digun moduan, Broken Izotz taldea "nahi barik" sortu zen. "Ezagun batek eta biok abestiak praktikatzen genituen. Ni ile-apaintzailea naiz eta bezero batek, Aitorrek, komentatu zidan gitarra jotzen ikasten zebilela eta abestea gustatzen zitzaiola. Gurekin aritzera gonbidatu genuen", ekarri du gogora. "Anaia-ekin batera, Natxorekin, Izotz taldean jo nuen 80 hamarkadan eta galdetu genion ea gurekin aritzeko gogorik zuen. Baietz erantzun zigun eta hala sortu zen Ke4 taldea. Bateria-jolerik ez genuenez, ordena-gailu-programa bat erabiltzen genuen".

Denborea pasatu, eta tabernetan eta jaietan kontzertu batzuk eman ostean, taldekideetarikoa batek alde egin zuen eta

*Eagles, Kortatu,
Itoiz edo Status
Quo taldeen
abestien bertsioak
jotzen dituzte*

Jelaren rocka

BROKEN IZOTZ TALDEA

Broken Izotz musika taldeak 50 urte inguruko lau lagun zamudioztarrek osatzen dute. Musikarako zaletasunak batzen ditu, eta ederto pasatzen dute gehien gustatzen zaizkien abestiak elkarrekin jotzen. Txorierriko tabernetan eta jaietan, behin baino gehiagotan eduki dugu haien musikaz gozatzeko aukera.

gainontzekoek taldearen izena aldatzea pentsatu zuten. "Aitorri otu zitzaion Izotz izena berreskuratu ahal genuela, baina Gipuzkoa aldean ere izen bereko taldea zegoenez, Broken Izotz ipintzea erabaki genuen. Hala, euskara eta ingelesa batu genituen eta Izotz hitzari indarra emango genion". Izen berriak aire berriaren beharra ekarri zuen eta taldekideek bertan jotzeko proposamena egin zioten Jaimeri. Broken Izotz 2015. urtean osatu zen.

Haiek sortutako abesti batzuk dituzten arren, Broken Izotz beste talde

batzuen bertsioak egiten dituen taldea da. "Musika mota asko gustatzen zaigu, baina gure kontzertuetara hurbiltzen direnei ere. Estilo ezberdinetako taldeen abestiak jotzen ditugu, esate baterako Los Secretosenak, Barrikadarenak edo Dire Straitsenak". Eagles, Kortatu, Itoiz edo Status Quo taldeen abestien bertsioak ere egiten dituzte kontzertuetan. "Gehienek ezagutzen dituzten abestiak dira". Baita haiek sortutako abesti pare bat ere. "Errepertorio antzekoa jotzen dugu kontzertuetan, noizean behin asko jotzen dugun baten bat



*“Ez gara jarraitzaileak
izateko hain talde
ezaguna, baina
jende gehienari gustatu
egiten gatzazkio”*

aldatzen dugun arren. Zein da jotzea
gehien gustatzen zaiguna? Berria dena, ia
beti”.

Zaletasunagatik

Taldekieiden esanetan, bertsoiak egi-
ten dituen musika taldea izateak daka-
rren abantaila da entzuleek zein haiek
beraiek gustuko dituzten abestiak jo ahal
dituztela. Kontzertuei dagokienez, aipatu
digute berdin diela han edo hemen ari-
tzea. “Deitzen diguten lekuan zein guk
proposatzen dugun lekuan”. Eta jarraitzaileak?
“Beno, ez gara jarraitzaileak izateko
hain talde ezaguna, baina jende gehienari
gustatu egiten gatzazkio”.

Entseguak Zamudioko Kultura Etxean
egiten dituzte, “gure ordutegiek uzten
digutenean”. Hala ere, kontzerturen bat

Taldekieak

–**Juan Hidalgo Ranilla:** gitarrak-
jolea. Taldeak: Izotz, Ke4, Kantarelux
eta Broken Izotz.

–**Natxo Hidalgo Ranilla:** baxu-jolea.
Taldea: Izotz, Ke4 eta Broken Izotz.

–**Jaime Gardoqui Errasti:** bateriak-
jolea, akordeoia eta ahotsak. Tal-
deak: Eguzki, Kantarelux eta Broken
Izotz.

–**Aitor Zarate Bustinza:** gitarrak-
jolea eta ahotsa. Taldeak: Ke4 eta
Broken Izotz.

badute, ahalegintzen dira gehiago entse-
atzen. “Dena dela, ez dugu egun asko
entseatzen, ez dugulako nekatu nahi.
Taldeen zaletasunagatik gaude, eta ondo
pasatzeko”.

Azken kontzertua Lezaman, Kurtzeko
jaietan, eman dute eta, aurreratu diguten
moduan, hurrengo Zamudion bertan
emango dute, “Kultur Etxean egingo den
urteurren baten ospakizunen haritik”.
Rock and rolla, ba!

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai izagazti Facebook-en

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Gabi-ikazki, erakurraz
Auzokoen konpainiak
Mantentze garbi-ikazki
Bulegoak eta lokalak
Ostia amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bilaketa
Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA
**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 849 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ
MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TELFOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
Lasai
Luis M° Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabarri, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Betikoa

Bego Dañobeitiak erretiroa hartuko dau laster. Orain dala 37 urte, Dañobeitia ahiztak janaridenda zabaldu eban Lezaman Mari Carmen ahizteagaz batera. Lan gogorra egin beharreko urteak izan dira, baina emakumeek bizi-modua ateratea lortu dabe eta beti eskaini deutsie irrifarra atetik sartu danari. Eureka izan gara denda txikien gorabeheren ganean.

t/a: Itxaso Marina

Ahiztek azaldu deuskuen moduan, lehen baino etekin gitxiago ateraten deutsie gaur egun dendeari eta horretan batez be hiru faktorek daukie eragina: krisialdiak –zelan ez–, ohituren aldaketeak eta bezeroen tipologiaren aldaketeak. “Gu hasi ginenean ez egoan supermerkatu handirik eta oso bezero onak euki genduzan, asteko erosketak bertan egiten ebezan andrak, esate baterako. Baina edadekoak izan dira eta hiltzen joan diran heinean galdu egin dogu, gazteek supermerkatu handietara joan gurago dabelako. Hona zerbait faltatzen jakenean datoz. Kozinatzeako ohiturak be aldatu egin dira; orain ez da lehen beste kozinatzen. Aurrez prestatutako jakiak erabiltzen dira asko”.

Denda txikiek ezin dabe supermerkatu handiakaz lehiatu, prezio eta produktuen aniztasunaren aldetik. Beraz, beste estrategia batzuk erabili behar dabez bezeroak erakartzeko, eta horreek kalidadea eta tratu hurbila dira. “Guk bertoko produktuak daukaguz salgai eta batez be frutaren aldeko apostua egiten dogu. Kalidadeko frutea ekarten dogu. Produktu ekologikoak be euki doguz, baina arrautzak izan ezean txarto saldu dira. Izan be, begiakaz jaten dogu eta, logikoa danez, produktu ekologikoen itxura ez da beste en beste ona, nahiz eta askoz goxoagoak

eta hobeak izan”. Era berean, garai barrietara egokitu behar izan dira eta lehen herri txiki bateko janari-denda baterako pentsaezinak ziran produktuak salgai ipini. “Ahuakateak, esate baterako”.

Aiztek erosketak etxera eroateko zerbitzua be eskaintzen dabe hasieratik. “Eta Goikobarrioraino, urrin-urrian, be joan gara inoz arroz pakete bat eroateko, e!”. Esan deuskuenaren arabera, bezeroakaz harremanetan hainbat urte egon ostean, familia handi bat balira moduan da akabuan. “Maitasuna hartzen deutsagu alkarri eta bezeroek zure beharra be baloratu eta eskertu egiten dabe. Faboreak be egiten dira: andraren bat ulepaindegiraino lagundu...”. Tratu ona ahizten beste erakargarri bat da. “Guk bardin-bardin tratatzen doguz asteko erosketa egiten dauena eta bakarrik ogia erosten dauena”. Jenteaurrean lan egiteko, pazientzia be euki behar da, eta psikologia erabili. “Asko. Bezeroen bat arazo bategaz-edo jatortzunean entzun egin behar deutsazu, lan handia euki arren. Zer egingo dozu, ba!”.

Denda txikiek auzoa girotu eta bizitasuna emoten deutsie herriari. “Eta lana sortzen edo manteniten be laguntzen dogu, jeneroa herriko ekoizleei hartzen badeutsegu”. Garrantzitsuak dira herriko ekonomiarako. “Baina handiek dana daroe beti. Denda asko zarratzen dabilz... eta pena bat da. Denda txikiak eta auto-



nomoak zaindu egin behar doguz, izan be, guztiok zarratzen badogu... Pena bat izango zan kipula bat eroatera ez dakit noraino joan behar izatea...”.

Familiartean

Lan handia egin behar da negozio bat aurrera ateratzeko eta hori ondotxo dakite Lezamako ahiztek. “Txarto pasau genduan hasieran, bezero gitxi egoalako. Baina, pitika-pitika bezeroak egiten joan ginen, eta oso onak, ganera. Bestalde, lehen, goizeko bostetan joaten ginan Merkabilla jenero bila, eta dendea gaueko 9ak arte geunkan zabalik. Orain Lezamako bati hartzen deutsagu frutea eta dendara ekarten deusku. Dendea 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabaltzen dogu, astelehenetik zapatu goizera arte; domeketan eta jai-egunetan zarratu egiten dogu”.

Bego eta Mari Carmenena ohiko janari-dendea da eta bertan danetarik topau daiteke: jatekoak, garbitzeko produktuak, higiene-produktuak... Betiko janari-denden itxurea be badauka, ahiztek ez dabelako gura izan aldaketa handirik egin.

“Gazteek supermerkatu handietara joan gurago dabe. Kozinatzeako ohiturak be aldatu egin dira”

“Goikobarrioraino, urrin-urrian, be joan gara inoz arroz pakete bat eroateko, e!”



*“Bardin-bardin
tratutzen doguz
asteko erosketa egiten
dauena eta bakarrik
ogia erosten dauena”*

*“Barre asko eta
asko egin doguz
berton... eta esuztekoak
be bai euki doguz.
Eta disgustuak”*

“Betiko kutsu hori mantenidu gura izan dogu. Frutea-eta be geuk zerbitzatzen deutsegu bezeroari”. Urte asko dira lau horma horreen artean eta oroitzapenak berehala datoz burura. “Barre asko eta asko egin doguz berton... eta esuztekoak be bai euki doguz: bezero biri infartua

emon eusten dendan. Eta disgustuak: bezero bat, laguna be bazana, dirua ostu-ten harrapau genduan”.

Jendaurrean lan egitea ez da erraza, batez be hasieran. Baina kontu horreek gaindituta, lezamarrek oso gustura eta oso pozik egiten dabe lan. “Lan polita da,

familiartean gagoz. Bezero asko hil egin dira eta atzera begiratzen dozu eta pentsetan dozu: ene, zenbat jente joan jaku!”. Begok aitortu deusku penea emoten deusola dendea ixtea. “Jakina! Baina aprobetxauko dot orain arte ezin izan dodana egiteko”. Mari Carmenek ahal arte jarraituko dau dendeagaz, eta beste pertsona bat hartu dau laguntzeko. “Beitu, beste lanpostu bat sortu da”. Eta dendan lan egingo ez dauen arren, handik agertzen jarraituko dauela esan deusku Begok, batez be lehengusina gaz batera hartzen daben kafea hartzeko ordua ailegatzten danean. Ohitura onak ez diralako galdu behar.

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORRIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko ditza. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

t: Gaizka Eguzkitza / a: T.H.

Aritz Martinez irudimen handiko mutila da. "Txikitan, nire klasekideak gura-soek erositako jolasekin jolasten ziren; nik, ordea, jolasak asmatzen nituen. Irudimena nahikoa da nahi duzuna egin ahal egiteko. Gaur egun, gauza berriak sortu behar ditut etengabe", esan digu. Horregatik, Arte Ederretako karrera ikasi beharrean, Bilbon diseinu goi-mailako zikloa egitea erabaki zuen azkenean. "Diseinuak erakartzen nau edozein gauza sortzeko gauza naizelako, baita zerotik hasita ere".

Denboraren poderioz, Aritz Tom Hennley bihurtu da. "Artista handi guztiek izen berezi eta esanguratsu bat izan dute. Ni Kuks Heilen hasi nintzen erabiltzen eta hori Henley bihurtu zen. Henley erregistratzen saiatu nintzen, baina baze- goen beste Henley bat, beraz, Hennley sortu nuen, "n" birekin. Eta gero Tom aukeratu nuen, izen laburrak eta errazak gustatzen zaizkidalako".

Diseinu zikloa bukatu zuenean, Tom Getxoko estudio batean ibili zen lan egi- ten pare bat urtean. "Bertan konturatu nintzen nire kabuz lan egin nahi nuela,

Artista anitza

TOM HENNLEY | artista sondikoztarra

Errenazimentuan, XIV. eta XV. mendeetan, sortzaileek hainbat jakintzagai jorratzen zituzten. Eredu horri jarraituz, Tom Hennley (1991) sondikoztarrak, besteak beste, argazkilaritza, diseinu grafikoa eta literatura lantzen ditu. Iaz bere lehenengo eleberria plazaratu zuen, *Su y el portal inexistente*, baina hori Hennley enpresaren lehenengo pausoetako bat baino ez da.

nik neuk zuzendu nahi dudalako nire lana, beste inoren agindupean egon barik. Eta horrela sortu zen Hennley enpresaren ideia", azaldu digu Tomek. Enpresa sei ataletan banandu du: diseinua, ilustrazioa, argazkilaritza, ikus-entzunezkoa, argitaletxea eta galeria. "Diseinuari eta arteari lotutako diziplina anitzeko enpresa bat da. Lan txukuna egin nahi dut, goi-mailako diseinu bat eskaini. *Ahal da, besterik ez da gure leloa*, hau da, gogoia, den-

bora eta dirua badago, edozein gauza egin daiteke".

Hennley enpresa lehenengo pausoak ematen dabil, baina Tom ez da geldirik egon; ezin da geldirik egon. "Hainbat gauza egin behar ditut, monotoniak itotzen nauelako. Hori dela-eta, hainbat kanabera botatzen dituen arrantzalea bezalakoa naiz, baina ikuspuntu artistikoarekin (kar, kar): eskultura, argazkilaritza, diseinua, ilustrazioa eta abarreko arteak landu ditut. Etengabe sortzea da gakoa". Ildo honi jarraituz, Tomek Jesús Lizaso eskultoreari lan batzuk egin dizkio: bere biografia, katalogo bat, Bilboko Rekalde aretoan ikusgai egon zen bideo bat... Gainera, txikitan asmatutako jolas horietako bat berreskuratu eta era profesional batean garatu du. "Agian inoiz merkatura-tuko dut (kar, kar)".



"Diseinuak erakartzen nau edozein gauza sortzeko gauza naizelako, baita zerotik hasita ere"

"Hainbat gauza egin behar ditut, monotoniak itotzen nauelako"



Liburua

Era berean, Tomek *Su y el portal inexistente* liburua argitaratu zuen 2016an. Hala ere, gazte sondikoztarrak ez du bere burua idazletzat hartzen. "Literatura errealitatetik ihes egiteko erabiltzen dudana beste era bat baino ez da". Tomek aitortu digu sei urte eman zituela liburua idazten eta trilogia bateko lehenengo liburua dela. Bigarrena, datorren urteko Gabonetarako espero du plazaratzea. Tomek berak argitaratu du liburua eta lehenengo edizioa arrakastatsua izanenez, bigarrenari ekin dio.

"Zail egiten zait liburuari buruz hitz egitea. Izan ere, oso argi daukat amaiera eta ez dut ezer aurreratu nahi, bukaera ez zapuzteko. Eleberrian denetarik dago: fantasia, abentura, maitasuna... Errealitatetik hartutako zenbait gauzak osatzen dute istorioa, baina nik genero fantastikoan sartuko nuke. Lehenengo liburu honetan pertsonaiak aurkezten ditut. Beraz, beste biak zirraragarriagoak izango dira".

Sondikoztarrak ez dio porrot egiteari beldur, bere hitzetan, "horrek irakasten laguntzen dizulako, hobe egiten zaituelako". Eta horregatik, etorkizunari begira, Tomek hainbat proiektutan jarraituko du lanean. Haietako batzuk duela aste batzuk martxan jarri duen webgunean dauka ikusgai. Bere lana oso anitza da, Tom bera ere badelako artista anitza.

Informazio gehiago:

www.hennley.com




Goitioltza, 33 bis **LEZAMA**
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centrodeestudiossolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com



auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
 **Izarza Pol.**
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

IRATXO
gozotegia
larta personalizatuen
trufak
tsukak
pastelak
pastak

Mikel Zazarte, 2 - 3. lonja • Sondika, 48150 • 94 543 89 10



Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com



Kataluniarekin bat



a: Gaizka Peñafiel, Roberto Gómez "Txiki"

Irailaren 22an eta 23an, hainbat ekitaldi egin ziren Lezaman eta Zamudion, Kataluniako herriari elkartasuna adierazteko eta erreferendumarekin bat egiteko. Ekintzak Izartu Lezamak eta Zamudioko Gure Esku Dago herri ekimenek antolatut zituzten.

David Fernàndezek (CUPEko ahaldua izan zena), Laura Mintegik eta Iñaki Zarraoak Lezamako pilotalekuan egindako mahai-inguru batean hartu zuten parte. Fernàndez ezin izan zen Lezamara hurbildu, Katalunian azken egunotan bizi ari diren egora dela-eta, baina mahai-inguruan *streaming* bidez eman zuen hango egoeraren berri. Bestalde, Josu Bergara eta Feliu Ventura kantautoreek musika saioa eskaini zuten. Hurrengo egunean, bat egin zuten Zamudion euskal eta katalan kulturek. Hala, kalejiran atera ziren suzko deabruak, Manresatik etorritako La Gatzara kultur elkartearen eskutik. Tailerrak ere egin ziren, dantzak, kopia saioa, herri bazkaria eta bertsolariak eta glosadorsak aritu ziren bat-batean. Suzko deabruak gaua argitu zuten beren piroteknia-ikuskizunarekin.

Bestalde, aipatu beharra dago Euskal Herriko hainbat musikaririk, bertsolaririk eta kantarik *L'Estaca* abestiaren bertsioa

egin dutela euskara eta katalana uztartuz, katalanei eta abian jarri duten prozesuari babesa eta elkartasuna adierazteko. Horien artean txorierritarrak ere badaude: Kattalin Zarate Lezamako dantzaria, eta Alfon Atela sondikoztarra eta Taberna Ibiltaria taldekoa. Gainera, abestiaren bideoklipa Gaizka Peñafiel eta Asier Olazar lezamarrek egin dute.

L'Estaca abestia Lluís Llach kantari katalanak sortu zuen 1968. urtean eta geroztik Herrialde Katalaneko kantu sinboli-

koa bilakatu da. Gorka Knör euskal kantari eta politikariak Xabier Leteren itzulpea hartu, eta euskarazko bertsioa kalera tu zuen 1976. urtean, Agure zaharra izenburupean. Euskal musikagintzaren esparruko hainbat herritarrek bertsio elebiduna egin dute orain. Bideoklipa Durango-ko Landako gunean grabatu dute, eta biral bihurtu da.

Garai nahasiak bizi dituzte Katalunian, urriaren 1ean erreferenduma egin-go zela iragarri zutenetik. Madriletik egin-

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txarrikeri etorbidea, 8 - Lortze 1 Arteaga anakina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOROGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 58
Fax 94 454 14 12

Mungaiako etorbidea, 25
48180 DERIO

t o k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorene 5, Behea 48180 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



a: Idoia Andrés



dako presioa, Fiskaltzak erreferenduma-
ren alde dauden alkateei deklaratzera
deitu izana, Espainiako Ogasunak Gene-
ralitateko presupuestoa kontrolatzea, 14
lagun atxilotu izana, miaketak... Txorie-
rrin, elkarretaratzeak izan dira Urriaren
1en kontrako makro-operazioa salatze-
ko. Era berean, Larrabetzuko udalbatzak aho
batez onartu zuen "Kataluniarekin bat.
Demokraziarekin bat" mozioa.

Izartu

Irailean, Izartu Lezama elkarteak jen-
daurrean aurkeztu da Lezaman. Azaldu
zuten moduan, elkarteak lezamarrek eus-
kaldunon estatus politikoari buruz duten
iritzia ezagutzea du helburu. Eta horreta-
rako, herri galdeketa egingo dute dato-



rren udaberrian, Euskal Herriko hainbat
udalerrirekin batera. Galdeketa Zamu-
dion ere egingo da.

"Izartu Lezama herri ekimen bat da
eta sinetsita gaude giltza herritarrengan
dagoela", esan zuten. Hala, ekimenean
parte hartzeko gonbitea luzatu zieten he-
rritar guztiei, herritarren parte-hartzea
eta ideiak ezinbestekoak jotzen dituztela-
ko. Datozen hilabeteotan hainbat ekintza
antolatuko dituzte, hala nola sinadura bil-
keta, hitzaldiak eta galdeketa eguneko
galdera adostea.

Lezaman egin den moduan, eta jaki-
narazitakoaren arabera, elkarteak Zamu-
dion ere laster aurkeztuko da. Hala, herri
bietako elkarteek elkarrekin lan egingo
dute herri galdeketa bidean.



Izartu Lezama elkarteak irailean aurkeztu zuten jendeaurrean aurkezpena

Konekta zaitez gurekin!




 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxori

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

WiFi konexio publikoak: zerbitzua ala tranpa?

t: J. Guridi (Goiena aldizkaria) / a: www.kaspersky.com

Liburutegietan, tabernatan eta beste hainbat leku publikotan WiFi konexio publiko eta irekiak aurkitu daitezke. Orokorrean, leku publikoan daudenez, eta batez ere, doakoak direnez, oso erabiliak dira. Pentsa, Facebookek ere bere mugikorrek aplikazioan horrelako sareak biltzeko tresna bat dauka. Hala ere, segurtasun maila baxuak kontutan hartzen ez diren arrisku asko ekar ditzake konektatzen den unean bertan.

Arrisku hauek era askotakoak izan daitezke, baina gehienetan, birusen zabalkundearekin eta datu lapurretarekin dute zerikusia. Azken kasu honetan, teknika desberdinen bitartez konektatzen den pertsonaren aktibitatea monitorizatu daiteke. Eta ez da behar tresna sofistikaturik, ezta programazio aurreratuak eza gutzarik, Interneten badaude hainbat bideo tutorial WiFi konexio publiko bat nola arriskuan jarri azaltzen dutenak, batzuk milioika ikustaldirekin.

Hala ere, bada oraindik antibirus batekin babestuta sentitzen denik ere. Egia da antibirusa beharrezkoa dela, ordenagailua kanpoko erasoetatik babesten duelako, baina datu lapurreta ez da ordenagailuan gertatzen, airean baizik. Beste modu batera esateko, antibirusa gazteluko harresia litzake, baina datu lapurreta bidean agertzen diren bandoleroek egiten dute, merkantziak gaztelu eta gaztelu artean garraiatzen diren momentuan. Gainera, WiFi publiko batean ehunka gailu egon daitezke konektatuta, eta zaila da nor den datuak lapurtzen ari dena identifikatzea.



Eta zer egin daiteke hori ekiditeko? Gauza sinpleena WiFi konexio publikoak ez erabiltzea da, hau da, sare seguru bat erabiltzea, kable bitartez konektatzea edo mugikorrek konexioa erabiltzea. Hala ere, erabili behar badira, datu pertsonalak eskatzen dituzten webguneak ekiditea gomendagarria da, hau da, pasahitzak, emailak eta kontu korrante zenbakiak esaterako. HTTPS protokoloa erabiltzea ere gomendatzen da ahal den guztietan, segurtasun maila handitzeko eta ahal den neurrian, VPN bitartez konektatzea. VPN batek datuak enkriptatzen ditu eta zailagoa egiten du datu lapurreta. Beste modu bat ere WiFi kone-

xioa behar denean bakarrik piztuta izatea da. Nahiz eta erabiltzen ez egon, konexioa gaituta badago informazio pakete txikiak bidaltzen eta jasotzen dabil uneoro, hau da, ateak zabalik jarraitzen du.

Gero eta WiFi konexio publiko gehiago erabili, aukera gehiago izango dira segurtasun arazo bat edukitzeko, baina pentsa sistema seguruena ere ez dela zeharkaezina. Izan ere, segurtasun informatikoaren munduan esaten den bezala, hiru erabiltzaile mota daude: noizbait hackeatuak izan direnak, noizbait hackeatuak izango direnak eta oraindik ez direnak konturatu hackeatuak izaten ari direla.

48190 LEZAMA Beldak
Geltokia 30

RENTALIZATZEA ETE REG-LENDAK

F: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Euskaldunon konpota



t: Juan Luis Goikoetxea / www.agenciasinc.es

*Txoriak txori,
herriak herri,
eta ni
euskaldun berri.*

Euskaldun berria da haurtzarora igaroz gero euskalduna dena. Euskaldun

zaharra, berriz, umezarotik euskalduna dena. Halaxe definitzen ditu Euskaltzaindiak. Jo dezagun –sagar-urte eta madari-urte honetan– euskaldun berria madaria dela, eta euskaldun zaharra sagarra. Biak batuta egingo genuke euskal konpota. Umearen dietarako pediatriak gomendatzen dituen lehen fruituak –4 hilabete-tik sei hilabeterako adinean– sagarra eta

madaria dira. Eta gurasoentzat ere, gozoak bezain digerigarriak dira. Euskaldun berria –madaria– edo euskaldun zaharra –sagarra– dira gure Txorierriko euskaldunak.

Gainera, euskaldunok euskaltzaleak izatea gura dugu, euskararen aldekoak, zaleak. Batzuetan ez gara konturatzen, euskara munduan geuk bakarrik egiten dugula. Txorierri Institutuan –34 urteko eraikina duenean– fisika ikasten da, eta Txinan ere bai, baina euskaraz bertan baino ez. Kimika ikasten da Indian, baina euskaraz hementxe baino ez. Historia ikasten da Britainia Handian, baina Euskal Herrikoa eta euskaraz, bertan baino ez. Hau da, informatika lantzen, fisika jorratzen, planetak aztertzen mundu guztikoak dabilta, baina euskaraz jagoen, zabaltzen, prestigioatzen geu baino ez. Sozialismoari buruz ari zela, Imanol Berriatuak –Israelen hobiratuak– esaten zidan: “Goiko, sozialismoaren alde –orain 50 urte– mundu guztia dabil, baina euskararen alde geu baino ez”.

Familiak eta irakaskuntzak euskaldun zaharrak sortzen dihardute; Berba-lagunekoek, euskaltegiek, AEKek euskaldun berriak egiten. Konpota –berba frantsesa– egiten jarraituko dugu 2017/18 ikasturtean ere, ahaztu barik, denok garela beharrezko; hi ere bai, euskal sagar edo euskal madari hori.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

PATXI
KOOP
PATO KOOPERATIBA ELKARTEA
Herriko politgunea - Euzkara 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 94 452 587 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cda. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

RUBEN
ERLOJU-DENDA, BITXITEGIA
Lehendakari Larrasa plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Ezpata-arraina, sagar-saltseagaz

a: ABCSevilla.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 ezpata-arrain trontzo.
- Tipuleta bi.
- Sagar 2.
- Tipulina.
- 200 ml esnegain.
- Edalontzi txiki bat ardao zuri.
- Perrexila.
- Oliba orioa.
- Gatza eta piperbeltza.



Prestetako area:

Sagarrak eta tipulina zatitu, eta tipuleta juliana eran ebagiko doguz. Kazola baten oliba orioa ipini eta han tipuleta frituko doguz arin. Eginda dagozanean, sagarra eta tipulina gehituko doguz. Handik minutu pare batera ardao botako dogu. Alkohola lurruntzen itxiko dogu.

Ezpata-arrainaren trontzoei gatza bo-
ta eta kazolan sartuko doguz, harik eta alde bietatik egiten diran arte. Esnegaina gehitu eta ondo irabiatuko dogu saltsea loditzeko. Perrexila botako dogu gaintik.

Etxeko sukaldaritza

Tomateak entsaladaz beteak

t: M. Lekerika / a: trimhealthydaughter.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 tomate ertain.
- 4 letxugaren hosto.
- 100 gr hegazuze oriotan.
- 4 antxoia oriotan.
- Patata egosi bat.
- Mahonesa.

Prestetako area:

Tomateak grabituko doguz eta goikoaldea kenduko deutsegu. Koilara txiki batez mamia kenduko dogu eta hori beste osagai guztiak batera nahastuko dogu (osagaiok alde zurretik txikituko doguz). Tomateak beteko doguz. Mahonesaz lagunduko doguz.



GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Muji
TAILLERIAK

Inbisa industrialdea
Astintze kalea 6. 16-17 C2 Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia
688 847 633 / 946 572 315
iker@mujiatellerak.com

ASADOR FUENTENEberria
"lor eta itsasoko baserria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarritan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

GAMINIZ
JATETXEA





Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

a: www.pasatiemposinfantiles.es



Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi biren artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Haizeari begira (Elkar), Jon Ariza.
- Kresalaren taberna (Elkar), Miren Agur Meabe.
- Labur txintan (Pamiela), Juan Kruz Igerabide.
- ETAren historia laburra (Txalaparta), Iñaki Egaña.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Bihotzen sendagilea (Ttarttalo), Kristien Aertssen.
- Pikondoaren Balada (Elkar), Leire Bilbao Barrieta eta Maite Mutuberria (il.). Lizardi Saria 2016.
- Julene bakarrik dago ikasgelan (Ttarttalo), Nathalie Dargent eta Yannick Thome (il.).

MUSIKA

- Estutu (Elkar), Gari & Maldanbera .
- Anaitasunean (Elkar), Pantxo Carrere.
- Hau (Gaztelupeko Hotsak), Neighbor.

Sudokua

9	6	1	8	3	4	2	5	7
4	8	2	7	5	9	3	6	1
3	5	7	6	2	1	4	8	9
2	3	5	1	7	6	9	4	8
7	9	4	3	8	2	6	1	5
6	1	8	9	4	5	7	3	2
1	4	9	5	6	7	8	2	3
5	2	3	4	9	8	1	7	6
8	7	6	2	1	3	5	9	4

8	7	6	2	1	3	5	9	4
5	2	3	4	9	8	1	7	6
1	4	9	5	6	7	8	2	3
6	1	8	9	4	5	7	3	2
7	9	4	3	8	2	6	1	5
2	3	5	1	7	6	9	4	8
3	5	7	6	2	1	4	8	9
4	8	2	7	5	9	3	6	1
9	6	1	8	3	4	2	5	7

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitz doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Azokak

Sondika

- > Enologia eguna. Urriaren 8an, 12:30etik 15:00etara, Goiri plazan.

Larrabetzu

- > Larrabetzuko produktuen azoka. Urriaren 22an, plazan.

Erakusketak

Derio

- > "Oporrak", Altzora euskara elkartearen eskutik. Urriaren 16tik 27ra, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > "Emakumea, lanean" eta "Euskal ohituren ikuspegi kubatarra", Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Lezama

- > "Zahartze aktiboa". Urriaren 5ean, 18:00etan, Adintsuen Elkartearen. Emakumeei zuzenduta.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan. Arantxa Iturberen *Koaderno Zuri*. Urriaren 19an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Smartphonak eta tabletak. Azaroaren 2tik 10era. Izena ematea: urriaren 2tik 11ra, liburutegian.

Derio

- > Argazki konposizioari buruzko mintegia. Urriaren 28an eta 29an, Hotel Holiday Inn Express Derion. DATEk antolatua. Izena ematea: datfotoderio@gmail.com.

Zamudio

- > Zen. Urriaren 1ean, 11:00etatik 13:30era, eskolako areto nagusian.
- > Meditazioa. Urriaren 19an, 19:00etan, eskolako areto nagusian.
- > Umeentzako tailer zientifikoa. Urriaren 21ean, 11:30ean, liburutegian.

Lezama

- > Autodefentsa feminista. Urriaren 28an, 10:00etan, Kultur Aretoan.

Larrabetzu

- > Oinarrizko Internet (helduentzat). Urriaren 16tik 20ra. Izena ematea: Anguleri Kultur Etxean.
- > E-liburutegia. Izena ematea: Urriaren 2tik 13ra, Anguleri Kultur Etxean.

Irteerak

Sondika

- > Kalamua mendia (Eibar). Azaroaren 5ean. Izena ematea: urriaren 31ra arte, liburutegian. Udalak eta gurasoen elkarteak antolatua.

Derio

- > Derio, Euskadi ezagutzen (Laudio-Amurrio). Urriaren 29an, 09:00etan, kiroldegian. Izena ematea: urriaren 25era arte, kiroldegian.

Zamudio

- > Palomares eta Larrasa. Urriaren 1ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Oiartzun-Orio. Urriaren 8an, Txirrin Txirrin elkarteak antolatua.
- > Bizkaiko Foru Aldundia. Urriaren 10ean, Lagunandre elkarteak antolatua.
- > Gipuzkoa. Urriaren 29an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Galarregi. Urriaren 8an, 08:30ean, plazan.
- > Legina. Urriaren 22, 09:30ean, eskolan.
- > Sierra Cantabria. Urriaren 28an, 08:00etan. Herriko plazan. Hirurak, Gailur mendi taldeak antolatuak.

a: Borja Estankona. Iturria: *xpressionkultura*



Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Borja Estankona. Urriaren 15ean, 18:30ean.

Txapelketak

Zamudio

- > Scalextric. Urriaren 28an, Racing elkartearen eskutik.

Bestelakoak

Derio

- > Adineko pertsonen Nazioarteko Eguna. Urriaren 9an, 19:00etan, Kultur Birikan. Nagusien Etxeak antolatuta.

Zamudio

- > Edadekoen Nazioarteko Eguna. Urriaren 1ean, 19:00etan, Adintsuen Etxean.

Larrabetzu

- > Saroarekin irakurketa saioak. Urriaren 6an, 16:30etik aurrera, Anguleri Kultur Etxean.

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

ERREKA
BONDO
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnos.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Faxa: 94 452 00 49



EZUSTEKO DESKONTUAK

URRIAN "Danerik Paraje" txartelarekin ordainduz gero

Deskontu aleatorioak



* Atzeratutako ordainketei ez zaie deskonturik egingo.



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkarte Profesionala
Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio

Derio



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAIA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

[ESKaintzak UDazkena - NEGUA 2017]

EZ DUT EZEREN TRUKE ALDATUKO

(SOILIK BESTE STIHL BATEN TRUKE)

* Eskaintzak, 2017ko abenduaren 22ra arte.



Bakarrik zure denda espezializatuan



BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com